

BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

PRIM 39



Egilea eta data: Luis Elizalde; 1928
(Ez dago jatorrizko proiekturik Udal Artxiboan)

Deskribapena

Kantoi bikoitzeko eraikina (hiru fatxadakoa), jatorriz erdisotoa, bastardea eta hiru goi oin dituen, gehi bi jasodura, txapitulak dituen mantsarda bikoitz gisa. Berriki hustua. Harlanduzko fatxadak, apaingarri eklektikoekin. Aluminiozko begiratokiak Prim kaleko ertzetako baotan.

Babes erregimena

- 1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.
- 2.- Berariazko erregimena.
 - A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: jasodura mantsardatuak (4. eta 5. goi oinak); begiratokiak.
 - B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak.
 - C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk:
 - * Begiratokiaren tratamendua ordenantza orokor horietan ezarritako irizpideetara egokituko da
 - * Erregimen orokor hori arautzeko gainerako baldintzak betetzeari loturikoak.